



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko otsailaren 28a

30. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2018ko azaroaren 19ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

1. bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. bis artikulua. Printzipio gidariak

Foru lege honek printzipio hauek ditu oinarri:

a) Herritarren parte-hartzea eskubide sozial eta demokratiko bat da. Eta herritarrek parte hartzeko prozesuan parte-hartze zuzena edo zeharkakoa izateak lagungarri gertatu behar du herritarren gizarte ongizatea bermatzeko, haien garapen sozialerako mekanismoak sortuz, betiere bilatze aldera guztiek beren nortasuna libreki gara dezatela eta eskubide guztiez goza dezatela.

b) Herritarren parte-hartzeak honako printzipio hauek eduki behar ditu gida moduan: demokrazia parte-hartzailea, interes kolektiboa, berdintasun soziala eta generokoa, justizia, osagarritasuna, kultur dibertsitatea, erantzunkidetasuna, baterako kudeaketa, lankidetzeta, elkartasuna, gardentasuna, zintzotasuna, eraginkortasuna, efizientzia, efektibotasuna, unibertsaltasuna, erantzukizuna,

betebehar soziala, kontu-ematea, kontrol soziala, ideien eztabaida askea, borondatezkotasuna eta ahultasun sozialeko egoeran dauden pertsona guztien eskubideak bermatzea”.

Zioak: Beharrezko iruditzen zaigu printzipio printzipio gidatzaile batzuk jartzea, foru legean ezarritako xedeen osagarri moduan.

2. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Beste artikulua bat, 1.ter artikulua, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

1. ter artikulua. Helburuak

Hauek dira foru lege honen helburuak:

1. Erraztasunak ematea Nafarroako herritarrek, erabakiak hartu eta parte hartzeko subjektu diren aldetik, protagonistak izan daitezkeen politika publikoak finkatu eta erabakiak hartzeko orduan.

2. Behar diren bideak irekitzea Nafarroako herritarrek parte har dezaten Foru Komunitatearen eta Nafarroako toki entitateen eremu politiko, kultural, ekonomiko eta sozialean, eta parte-hartze hori sustatzea.

3. Nafarroako gizartean kultura parte-hartzailea eta gogoeta-pizgarria bultzatzea.

4. Entitate publikoen eta ordezkari-erakundeen gobernu ekintza herritarren lehentasunetara hurbiltzea.

5. Herritarrek gobernu-ekintza kontrolatzeko mekanismoak indartzea, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ezarritako baldintzetan.

6. Gizarte zibilaren barne-antolaketa sendotzea.

7. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta toki administrazioen arteko lankidetzaren sustatzea herritarren parte-hartzea kudeatu eta sustatzeari dagokionez.

Zioak: Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektuaren jatorrizko 2. artikulua edukia berreskuratzea; izan ere, artikulua hori testutik ezabatu zen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2018ko abenduaren 17ko bilkuran hartutako erabakiaz, beste artikulua batzuekin batera bereiz jaso zedin Parlamentuaren Erregelamendua aldatzeko berariazko lege proposamen batean.

Gure ustez ez dago zertan artikulua hori kendu legetik, baldin eta honako esaldi hau gehitzen bada, 5. puntuan egin dugun bezala: "Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua ezarritako moduan"; horrekin, izan ere, erregelamendua inbaditzea saihesten da.

3. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

1. artikulua 3. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

"1. Foru lege honen aplikazio eremuak Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nafarroako toki entitateen gobernu eta administrazio arloko eskumenei eragiten die. Halaber, IV. kapituluaren (Galdeketa) araututako parte-hartze prozesuaren xede izan ahalko dira, foru lege honetan ezarritako baldintzetan, kasuko parte-hartze prozesua bideratzen zaien herritarrentzat garrantzi berezia izan dezaketen edo haiek ukitu ditzaketen interes orokorreko gaiak.

Zioak: Aplikazio-eremua zabaltzea.

4. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

3. artikulua -"Aplikazio esparrua"- 2. apartatuari c) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"c) Nafarroako Unibertsitate Publikoari".

Zioak: Parte-hartzeak errealitate bat izan behar du baita Nafarroako gazteen unibertsitate-prestakuntzaren etapan ere.

5. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

3. artikulua -"Aplikazio esparrua"- 2. apartatuari d) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"d) Nafarroako Gobernuaren menpeko ikastetxe publikoak, irakaskuntzarako institutuei eta lanbide heziketako zentzuei, bai eta itunpeko ikastetxei ere".

Zioak: Parte-hartzeak errealitate bat izan behar du gazte-gaztetatik, eta horretarako onena ikasleak gardentasunean hezteko da, prestakuntzaren hasieratik abiatuta.

6. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Beste artikulua bat, 3.bis artikulua, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"3. bis artikulua. Eskubideak.

Parte-hartzeari dagokionez, honako eskubide hauek aitortzen dira, foru lege honetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua ezarritako moduan eta norainokoarekin:

1. Legegintzako herri-ekimenen bidez legegintzako proposamenak sustatzeko eskubidea.

2. Foru lege honetan ezarritako parte-hartze bideak erabiliz, Nafarroako Gobernua eta toki entitateetako gobernu organoak kontrolatzeko lanetan parte hartzeko eskubidea.

3. Foru Gobernua bultzatzeko lanetan parte hartzeko eskubidea, Nafarroako Parlamentuan mozio bat sustatzeko dauden herritarren ekimenen bidez.

4. Eztabaida publikoen sustapenean parte hartzeko eskubidea, Nafarroako Parlamentuak adierazpen instituzional bat onestea bilatzen duten herritar ekimenen bidez.

5. Zerbitzu publikoen plangintzan, jarraipenean, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzeko

eskubidea, prozesu parte-hartzaileen eta herritarren ekimenen bitartez.

6. Parte-hartzeari lotutako herritarren jardueretan administrazio publikoen laguntza eskatzeko eskubidea.

7. Parte-hartze prozesu desberdinetan iritzia emateko eta protagonismoko eginkizun bat izateko eskubidea, politika publikoei buruzko erabakietan erantzunkide eginez”.

Zioak: Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektuaren jatorrizko 4. artikulua edukia berreskuratzea; izan ere, artikulua hori testutik ezabatu zen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2018ko abenduaren 17ko bilkuran hartutako erabakiaz, beste artikulua batzuekin batera bereiz jaso zedin Parlamentuaren Erregelamendua aldatzeko berariazko lege proposamen batean.

Gure ustez ez dago zertan artikulua hori kendu legetik, baldin eta honako esaldi hau gehitzen bada, artikulua honen lehen esaldian egin dugun bezala: “foru lege honetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritako moduan eta norainokoarekin”; horrekin, izan ere, erregelamendua inbaditzea saihesten da.

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

6. artikuluari –“Betebeharrak”– 8. apartatua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“8) Gune digital handienetan presentzia izatea eta haietako parte-hartzea zabaltzea, honako hauek barne: sare sozialak web-orriak, mugikorak, berehalako mezularitza edo beste formatu batzuk”.

Zioak: Zabalkundeak parte-hartzea sustatzen dutenen lehentasunetako bat izan behar du.

8. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

8. artikulua lehenengo paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

8. artikulua.

“Herritarren parte-hartze prozesuak, oro har, Nafarroako Gobernuaren, Foru Komunitateko Administrazioaren edo toki entitate baten eskumenekoak diren honako kontu edo gaiei buruzkoak izanen dira, eta, aparteko kasuetan, prozesu horiek zuzentzen zaizkien herritarrentzat garrantzi berezia izan dezaketen edo haiek ukitu ditzaketen gaiei buruzkoak”.

Zioak: 3. artikulua dela-eta aurkeztutako zuzenketarekin bat etortzearen.

9. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

8. artikulua c) puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“c) Lehentasunei eta plangintzako eta aurrekontu-kudeaketako beste alderdi jakin batzuei buruzko erabakiak hartzea”.

Zioak: Gure ustez, legeak anbizio handiagoa eduki behar du herritarren parte-hartzearen xedeei dagokienez, eta, zehazki, aurrekontu parte-hartzaileei dagokienez. Zuzenketa gehiago aurkeztu ditugu horri buruz.

10. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

9. bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“9. bis artikulua. Zozketa bidezko parte-hartzea.

a) Foru lege honen 55. artikuluan araututako Parte-hartzaileen Erregistroan izen emandako pertsonen artean modu aleatorioan egindako zozketaren bidez herritarrek nahitaez parte hartzeko aukera ezartzen da, parte-hartze prozesuen modalitate jakin batzuetan (eztabaida prozesuak eta aurrekontu parte-hartzaileak), herritarren erantzunkidetasuna bultzatzeko.

b) Erregelamendu bidez garatuko da prozedura horri buruzko guztia, horren barne direla gu-

txienez Administrazio Publiko eskudunak parte-hartze mota horren alde egiten duen prozesuek eduki beharko lituzketen ezaugarriak; hautatzen diren pertsonen ezezkoa arrazoitu dezaketen kausak; kargu publikoren bat betetzeagatik edo beste arrazoiren batengatik salbuetsita gera litezkeen pertsonak; genero-irizpideak bermatzea, eta abar”.

Zioak: Ideia hori ez da berria Nafarroan. Auzolana, politika publikoetako koerantzukizunaren elementu gisa, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 53.1 artikuluan araututa dago (“Nafarroako toki entitateek zilegi izanen dute zerbitzu pertsonala ezartzea, auzolana alegia, eta bai garraiozkoa ere landa bide eta auza bideak egin, kontserbatu eta hobetzeko, eta jeneralean, bere eskumenpeko lanak egiteko”).

11. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10. artikulua –“Deialdia”– 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“2. Herritarren parte-hartze prozesuaren esparrua toki mailakoa bada, kasuan kasuko toki entitateko lehendakariari edo osoko bilkurari dagokio deialdia egitea, eztabaidagaiaren gaineko eskumena nork duen. Deialdia entitatearen iragarki-oholean eta foru lege honen 6. artikulua 8. artikuluan aipatutako espazioetan argitaratuko da”.

Zioak: Web-orria baizik ez jartzeak kanpoan uzten du populazioaren zati handi bat, gazteak batez ere.

12. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

1. artikulua 11. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“11. artikulua. Eraginkortasuna.

1. Foru lege honen 7. artikulua jaso diren parte-hartze prozesuen emaitzak, eragin juridiko loteslerik izanen ez badute ere, agindu demokratiko eta politiko bat izanen dira erakundeentzat; hori dela eta, onartzen ez badira (...)”

Zioak: Gure ustez, egiazko demokrazia batean, eztabaida- edo kontsulta-prozesu baten emaitza, juridikoki loteslea izan ez arren, ondorio politikotarako, herritarren aginduaren izaera eduki beharko luke, zeren eta herritarren borondate argi bat badagoenez, libreki adierazia, nekez mantendu ahalko litzateke haren aurkakoa den jarrera politikoa izatea edo herriaren aginduaren arabera ez jardutea. Horixe da, hain zuzen ere, parte-hartzearen erabilgarritasuna. Erakundeek harrerako jarrera edukitzea herritarren parte-hartzearen emaitzak direla-eta erakundeenganako konfiantza berreskuratzeko modu bakarra da.

13. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12. artikulua –“Nafarroako Foru Komunitateko betebeharrak”– 2. apartatuaren a) letra kentzeko zuzenketa. Hona testua:

“a) Presaz onesten edo izapidetzen diren plan eta programak”.

Zioak: Arriskutsu gertatzen da presaren gaia gehitzea parte-hartzea saihesteko.

14. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12. artikulua –“Nafarroako Foru Komunitatearen betebeharrak”– 3. apartatua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak barneko parte-hartzea inplementatu eta erraztuko du bere baitan”.

Zioak: Etsenpluaren bidez predikatuz, Administrazioak bere funtzionarioen eta bera osatzen duten gainerakoen parte-hartzea erraztu behar du.

15. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

16. artikulua beste letra bat, g) letra, gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen luke:

“g) Prozedura eta epe berariazkoa, zozketa bidez parte hartzeko formula erabili behar den kasuetan”.

Zioak: 9. bis artikulua sortzen duen zuzenketa-rekin bat etortzearen.

16. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

18. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da idatzita:

“18. artikulua. Definizioa

Herritarrek aurrekontua egiterakoan parte hartu har ditzaketen prozesuak dira; herritarrek, halaber, parte hartuz laguntzen dute beren iritzia ematen edo/eta diru-sarrerekin eta aurrekontu-lehentasunekin lotutako alderdiak zehazten, bai eta xede horretara berariaz esleitutako gastu-aurrekontuko partida jakin batzuen zertarakoa zehazten ere”.

Zioak: Apartatu honi anbizio eta zehaztasun handiagoak eman behar zaizkio. Gure ustez, ezin da mugatu, jatorrizko definizioan agertzen den bezala, honako hau esatera: “herritarrek modu parte-hartzailean laguntzen dute aurrekontuetan berariaz horretarako finkatutako partida batzuen destinoa zehazten” Nabarmena denez prozesuen emaitzak ez direla lotesleak, parte-hartze prozesu batzuk egon litezke non herritarrekin eztabaidatu eta aztertu baita diru-sarrerekin eta aurrekontu-lehentasunekin lotutako alderdiak ere, prozesua partida jakin batzuen zertarakoa zehaztera murriztu gabe.

17. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

19. artikulua –“Aurrekontu parte-hartzaileak Nafarroako Gobernuan”– aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“19. artikulua. Aurrekontu parte-hartzaileak Nafarroako Gobernuan.

1. Gobernuak herritar nafarren iritzia jaso beharko du bai Nafarroako Aurrekontu Orokorren urteko aurreproiektuaren aurrerapenari buruz, bai, behin onetsi ondoren, aurrekontuen edukari buruz.

2. Era berean, Nafarroako Gobernuko departamentuek herritarren parte-hartze prozesuak sustatu beharko dituzte gastuaren alderdi jakin batzuk lehenesten laguntzeko. Prozesu horien xede kasuan kasuko departamentuari atxikitako gastuen aurrekontuko partidak izan daitezke, edo Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontuaren gastu-egoeren aurreproiektuetan sartzea aurreikusita dauden beste partida batzuk. Hori guztia erregelamenduz ezarriko da, foru lege hau onetsi ondoren”.

Zioak: Ez da posibilitate kontu bat (ahal izan), baizik eta betebeharrak (behar izan).

18. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

19. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da idatzita:

“19. artikulua. Aurrekontu parte-hartzaileak Nafarroako Gobernuan.

1. Gobernuak herritar nafarren iritzia jasoko du (...).

2. Era berean, Nafarroako Gobernuko departamentuek herritarren parte-hartze prozesuak sustatu dituzte (...).

3. Nafarroako Gobernuak parte-hartzerako gutxienez ere prozesu bat ezarri beharko du aurreko puntuan aipatzen den erregelamenduan ezartzen diren aukeren eta modalitateen esparruan”.

Zioak: Gure ustez, aurrekontu parte-hartzaileek betebeharrak izan behar dute administrazioentzat, eta gutxienez oinarriko prozesu bat ezarri beharra dago. Horixe da 1. eta 2. puntuetako eta 3. puntuan egindako gehikuntzako ahozko moduari buruzko aldaketan oinarria.

19. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

2. artikuluan 20. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“20. artikulua. Toki entitateen aurrekontu parte-hartzaileak.

2. Prozesu horien xedea da gastuaren edo/eta diru-sarrerekin lotutako alderdi batzuen atxikipena egitea (...).”

Zioak: Artikulu honi anbizio handiagoa eman behar zaio. Nabarmena denez prozesuen emaitzak ez direla lotesleak, parte-hartze prozesu batzuk egon litezke non herritarrekin eztabaidatu eta aztertu baita diru-sarrerekin lotutako alderdiak ere.

20. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

21. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da idatzita:

“21. artikulua. Modalitateak

Administrazio publikoek hainbat kontsulta-modalitate sustatu ahalko dituzte herritarren parte-hartze prozesuak direla eta.

[...].”

Zioak: Kontua da kontsulta-modalitateak lotzea administrazio publikoen ahalmenekin, eta ez soilik kontsulta-modalitateen zerrenda bat eta haien definizioak ematea.

21. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

21. bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“21. bis artikulua. Garapena

Administrazio publiko eskudunak ezarriko du zein kasutan izanen den egokia galdeketa-modalitate horietako bakoitza, bai eta prozesu bakoitza publiko egiteko eta garatzeko eta emaitzak herritarren eskura jartzeko mekanismoak ere”.

Zioak: Kontua da aurreko artikulua osatzea, galdeketa-modalitateen zerrenda egitera eta haien

definizioak ematera ez mugatzeko; hartara, gero-ko garapen bati buruzko aipamena egiten da.

22. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

1. artikulua 22. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“22. artikulua. Definizioa

1. Foru Lege honen ondorioetarako (...) herritarren sektore edo gizatalde jakin baten edo deituta-ko herritar guztien iritzia ezagutzea helburu duen herritarren parte-hartzerako tresna bat, non hauteskunde izaera ez duen bozketa sistema bat erabiltzen baita ukitutako sektoreak interes publikoko gaietara buruz duen iritzia ezagutzeko”.

Zioak: Herritarrei egindako kontzulten aplikazio-eremua zabaltzea.

23. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

2. artikulua 22. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“2. Foru lege honetatik kanpo geratzen dira Toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen urriaren 28ko 27/2002 Foru Legean araututako kontsulta-gaiak, bai eta erreferendumaren xede diren gainerako gaiak ere, Konstituzioaren 149.1.32 artikuluan xedatutakoari jarraituz”.

Zioak: Artikulu honen beraren 1. puntuan hitzez hitz esaten den arren kontsultek erreferendum-izaerarik ez dutela, aldaketa planteatzen da Parlamentuko zerbitzu juridikoek egindako txosten juridikoaren gomendioan oinarrituta, segurtasun juridiko handiagoa lortze aldera.

24. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

24. artikulua –"Subjektuak"– 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

"1. Nafarroa mailako herritar-galdeketeran parte hartzeko eskubidea foru lege honen 5.2 artikuluan aipatzen diren pertsonak izanen dute, galdeketeraren xedeko gaiarekin zerikusia badute, 16 urtetik gorakoak badira".

Zioak: Tokiko eremuan zentzua badu ere, foru eremuan erroldaturik egotearena sobran dago, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 5. artikulua aurka egonen ginatekeelako; hain zuzen, foru lege honen 52. artikulua aipatzen du hori.

25. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
AURKEZTUA**

1. artikulua 25. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

"25. artikulua. Mugak

1. Galdeketeraren xedeko gaia organo dei-egilearen eskumenekoa izan beharko da. Hala eta guztiz ere, kontsultaren xedea izan liteke ezagutzea deitutako herritarrek nolako iritzia duten garrantzi berezia duen edo haiengan zuzeneko eragina duen gai batekin".

Zioak: Kontsulta horiek erreferendum-izaerarik ez dutela eta juridikoki lotesleak ez direla agerikoa denez, ez litzateke inongo oztoporik egon beharko herritarrek edozein gairi buruz duten iritzia ezagutzeko, organo deitzailearen eskumen zuzena ez bada ere.

26. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

26. artikulua –"Definizioa"– e) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"e) Foru lege honen beraren 6. artikulua apartatuan aipatutako bideetan azaltzea".

Zioak: Egungo komunikazio-bideetan jarri behar da azpimarra.

27. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

26. artikulua –"Definizioa"– f) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"f) Nafarroako Foru Komunitatean administrazio-prozesuei buruzko legeek eta beste erregelamendu batzuek nahitaezko gisa jasotzen dituzten alde aurreko kontsultak hobetzea".

Zioak: Garrantzitsua da Foru Administrazioa ere iristea intentsitate guztiarekin.

28. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

V. kapituluaren beste artikulua bat, 26.bis artikulua, gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du

"26. bis artikulua. Kontuak ematea.

Parte-hartze demokratikoaren zikloaren azken maila da, eta politika publikoen eta parte-hartze prozesuen ebaluazioaren bidez gauzatzen da. Horrenbestez, administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte bermatzeko herritarrek zorrotz ezagutzen dituztela politika publikoen emaitza eta haiek berekin dakarten inpaktu soziala".

Zioak: V. kapituluaren izenburua aldatzen duen zuzenketarekin bat etortzeko. Beste zuzenketa batean argudiatu dugun bezala, parte-hartzea gertatzen da parte hartzeko, iritzia emateko, ekarpenak egiteko eta politika publikoen inguruko erabakietan koerantzulea izateko herritarrek daukaten eskubidean oinarrituta. Hori dela eta, foru lege honetan kontuak ematearena jaso behar da.

29. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

45. artikulua –"Hasiera"– c) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

"c) Gutxienez hamar pertsonak osatutako izenzerrenda bat –Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 5.

artikuluaren ezarritakoa bete beharko dute, beren datu pertsonalak aurkeztu beharko dituztenak (izena eta NANaren fotokopia sinatua). Une horretatik aurrera ekimenaren batzorde sustatzailea osatuko dute; zerrenda horretan, emakumeen eta gizonen arteko banaketa orekatua izanen da. Gainera, honako hauek adierazi beharko dira:”.

Zioak: Erroldatzea eskatzea atzera egitea da, are gehiago legeak berak zenbait aldiz aipatzen duenean Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoa bete beharko dela.

30. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

47. artikulua –”Izapidetzea”– 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“3. Sinatzaileek 16 urtetik gorako adina izan beharko dute, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoa betetzen dutenak, eta haien haien sinadurek foru lege honen 57. artikuluan aurreikusitako prozeduren bidez egiaztatuak egon beharko dute”.

Zioak: Erroldatzea eskatzea atzera egitea da, are gehiago legeak berak zenbait aldiz aipatzen duenean Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoa bete beharko dela; gainera, parte-hartzeari buruzko erregistroa kendu egin behar da.

31. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

48. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, artikulua hori Toki Administrazioari buruzko Legean ezarritakoaren aurkakoa da.

32. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

49. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, artikulua hori Toki Administrazioari buruzko Legean ezarritakoaren aurkakoa da.

33. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

49. artikulua –”Onarpena”– 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“1. Toki entitateko lehendakariak ekimena izapidetzeko onartzeari buruzko erabakia hartuko du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ebazpen hori ekimenaren eledunari jakinaraziko zaio, eta toki entitatearen iragarki-taulan eta, hala badagokio, web-orrian argitaratuko da, bai eta haren gune digitaletan ere, sare sozialak, berehalako mezularitza eta beste barne direla”.

Zioak: Publizitatea web-orrira mugatzeak jende asko uzten du kanpoan.

34. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

50. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, artikulua hori Toki Administrazioari buruzko Legean ezarritakoaren aurkakoa da.

35. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

51. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da idatzita:

“51. artikulua. Parte-hartzearen gune digitala.

Gobernu Irekiaren Parte-hartzerako Gune Digitala parte-hartzeari buruzko informazioa eskuratzeko puntua izanen da, eta hartatik bideratuko da informazio hori. Atari horretan:

a) Nafarroako Gobernuak (...)

e) (...) onetsiz gero, katalogoan sartuko da.

Zioak: Baldin eta foru lege honek sortuko balu Gardentasunari buruzko Legearen 10. artikuluan

araututako Gobernu Irekiaren Atariaz beste web-gune bat, bi gune horien eginkizunen elkarren gainjartze bat gertatuko litzateke. Izan ere, Gardentasunari, informazio publikoa eskuaratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legeak Gobernu Irekiaren Atariari esleitzen dizkion eginkizunetako bat da “Herritarrek gai publikoetan duten parte-hartzea eta inplikazioa bideratzea, Administrazio Publikoaren laguntzaile aritu daitezela...”.

Hartara, gure ustez ez litzateke komenigarria izanen bi webgune desberdin edukitzea.

36. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

52. artikulua, “Parte-hartzerako gune propioa”, aldatzeko zuzenketa. Horretan, “Parte-hartzearen Webgunea” terminoaren ordeztuz, “Gobernu Irekiaren Gune Digitala” erabiliko da.

Zioak: Aurreko artikuluari aurkeztutako zuzenketarekin bat etortzea.

37. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

53. artikulua –”Parte-hartze kontuetako unitate espezializatua”– g) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“g) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Parte-hartzearen gaineko urteko plana prestatzea, Nafarroako Gobernuak onetsi dezan”.

Zioak: Norbaitek hartu behar du planaren exekuzioaren gaineko ardura.

38. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

53. artikulua –”Parte-hartze kontuetako unitate espezializatua”– j) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“j) Web guneen, sare sozialen, berehalako mezularitzaren eta bestelako bidez Nafarroako Foru Komunitateko partaidetza-prozesuen bultzatze,

sustapen eta zabalkunde egokiak egiten direla zaintzea”.

Zioak: Beste behin, komunikazioaren errealitatea gehitzea.

39. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

53. artikulua –”Parte-hartze kontuetako unitate espezializatua”– k) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“k) Foru lege honetan aurreikusita dauden eta prozesua onetsi baino lehen gauzatu behar diren parte-hartze prozesu guztien kalitatea baloratzea eta Nafarroako Gobernuari hari buruzko txostena egitea”.

Zioak: Prozesuen zorrotasuna indartzeko kontrol bat eraman beharko da.

40. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

53. artikulua –”Parte-hartze kontuetako unitate espezializatua”– l) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“l) Nafarroako Foru Komunitateko parte-hartze prozesuen urteko oroitidazki bat egitea”.

Zioak: Herritarrentzako osotasuneko ikuspegi bat edukitzea garrantzitsua da.

41. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

53. artikulua –”Parte-hartze kontuetako unitate espezializatua”– m) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“m) Nafarroako Foru Komunitatean parte-hartzearekin lotutako kide anitzeko organoen funtzionamendua ebaluatu hobekuntzak bultzatzea”.

Zioak: Kide anitzeko organoen gainean beharrezkoa den kontrola.

42. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

55. artikulua –"Parte-hartzaileen Erregistroa"–
kentzeko zuzenketa. Honako hau da testua:

"55. artikulua. Parte-hartzaileen Erregistroa.

1. Nafarroako Gobernuko Parte-hartzaileen Erregistroa sortzen da, herritarren parte-hartzearen arloan eskumena duen departamentuari atxikita, non foru lege honen arabera galdeketa edo herritarren ekimen batean parte hartzera deituak izan daitezkeen pertsona guztiak sartuko baitira.

2. Foru lege honetan ezarritako kasuetan parte hartzeko eskubidea erabiltzeko legitimaturik dauden pertsonak direla egiaztatzen duten erregistro-tresnetako datuak jasoko dira Parte-hartzaileen Erregistroan.

3. Erregistroan izena emana ez izateak ez du inoiz ere ekarriko parte hartzeko eskubidea kentzea edo hari uko egitea, betiere sinatzen den unean legitimaturik dagoela egiaztatzen bada.

4. Parte-hartzaileen Erregistroaren araubide juridikoa eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira".

Zioak: Jendeari inolaz ere parte ez hartzeko falta zaion bakarria da erregistro batean alta eman behar izatea. Artikulu hau atzerapen handi bat da.

43. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

55. artikulua 1. eta 2. puntuak aldatzeko zuzenketa. Testuak honela geldituko dira:

"55. artikulua. Parte-hartzaileen Erregistroa.

1. Nafarroako Gobernuko (...), non foru lege honen arabera galdeketa edo herritarren ekimen batean parte hartzera deituak izan daitezkeen pertsona eta gizarte-entitate guztiak (...)

2. "Foru lege honetan (...) erabiltzeko legitimaturik dauden pertsonak edo entitateak direla (...)"

Zioak: Pertsona fisikoak jasotzeaz gainera, Erregistroak gizarte-entitateak ere hartu beharko lituzke.

44. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
AURKEZTUA**

56. artikulua 1. eta 2. puntuak aldatzeko zuzenketa. Testuak honela geldituko dira:

"56. artikulua. Herritarren Foru Kontseilua

1. Herritarren Foru Kontseilua sortzen da. (...)

2. Herritarren Foru Kontseilua Nafarroako herritarren parte-hartzeari lotutako gaitan kontsultak egiteko eta parte hartzeko organo gorena da Nafarroako Foru Komunitatean, eta haren helburua izan da Nafarroako herritar guztiak ordezkatzeari".

Zioak: Arlo honen ezaugarriak direla eta, eta handinahiak izan nahi badugu, proposatuko genduke ohiko kide anitzeko organoek eta kontseilu aholku-emaleek harago doan organo bat sortzea, zeinak herritar guztiak ordezkatu ahalko dituen, erakundeen ordezkartzaren osagarri, zenbait politika publikoren inguruko erabakiak modu parte-hartzailean hartzerakoan eta haien norabidea ezartzerakoan. Horregatik, Herritarren Foru Kontseilua sortzea proposatzen dugu.

45. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
AURKEZTUA**

56. artikulua 3. puntuan a) bis puntua gehitzeko zuzenketa; honako testu hau izanen du:

"a) bis. Erakundeen osagarri jardutea zenbait politika publikotako erabakiak modu parte-hartzailean hartzerakoan eta haien norabidea ezartzerakoan, eta eztabaida-prozesu jakin batzuetako subjektua izan ahal izatea, herritarren epaimahai baten eginkizuna betez politika publikoen eremuko erabakien plangintza egiterakoan, eta haiek ebaluatzerakoan edo erabakiak hartzerakoan, herritarren legegintza-ekimen baten talde sustatzailea ere izan ahal izatea, sinadurak biltzeko beharrik gabe, baldin eta kontseiluaren heren batek erabaki hori babesten badu".

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat etortzeko. Arlo honen ezaugarriak direla eta, eta handinahiak izan nahi badugu, proposatuko genduke ohiko kide anitzeko organoek eta kontseilu aholku-emaleek

harago doan organo bat sortzea, zeinak herritar guztiak ordezkatu ahalko dituen, erakundeen ordezkartzaren osagarri, zenbait politika publikoren inguruko erabakiak modu parte-hartzailean hartzerakoan eta haien norabidea ezartzerakoan.

46. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
AURKEZTUA**

6. artikulua 56. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

6) Herritarren Foru Kontseilua hautatu eta antolatzeko eta abian jartzeko prozesua erregelamenduz zehaztuko da, foru dekretu bidez. Nolanahi ere, kontseilua atxikitzen zaion departamentuko titularrak izanen da haren burua, eta berrogeita hamar pertsonak osatuko dute gutxienez ere, ehun pertsonak gehienez ere, parekotasun irizpideekin hautatuak. Bi urtez behin txandakatuko dira, eta bertan erabakiak hartzeko araua "pertsona bat, boto bat" izanen da. Honako hauek hartuko dute parte hartan:

a) Heren bat Nafarroako Foru Komunitateko eta Nafarroako toki entitateetako ordezkariak izanen dira.

b) Heren bat elkartegintza-ehundurako erakunde eta elkarteeetako eta foru lege honetan araututako parte-hartzerako erregistroan alta emanda dauden herritarren parte-hartzerako entitateen edo foro honetan beren borondatez parte hartu nahi duten entitateen ordezkariak izanen dira. Baldin eta entitate gehiago badaude tokiak baino.

b) Heren bat foru lege honetan araututako parte-hartzerako erregistroan alta emanda dauden edo beren borondatez foro honetan parte hartu nahi duten pertsonen artean modu ausaz, zozketa bidez, hautatutako herritarrek izanen dira.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko. Arlo honen ezaugarriak direla eta, eta handinahiak izan nahi badugu, proposatuko genuke ohiko kide anitzeko organoek eta kontseilu aholku-emaleek harago doan organo bat sortzea, zeinak herritar guztiak ordezkatu ahalko dituen, erakundeen ordezkartzaren osagarri, zenbait politika publikoren inguruko erabakiak modu parte-hartzailean hartzerakoan eta haien norabidea ezartzerakoan.

47. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

56. artikulua –"Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilua"– 6. apartatuari e) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"e) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ordezkariak".

Zioak: Hura aplikatuta, NUP sartu beharko genuke kontseiluan.

48. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

56. artikulua –"Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilua"– 6. apartatuari f) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"f) Lanbide elkargo batzuen ordezkariak".

Zioak: Ez ditugu alde batera utzi behar Nafarroako lanbide elkargoak.

49. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

57. artikulua c) apartatuaren bi puntua kentzeko zuzenketa.

Artikulu honetatik kenduko da "– Idazkari judicial batek".

Zioak: Parlamentuko zerbitzu juridikoek egingako txosten juridikoak dioen bezala, kendu beharra dago Justizia Administrazioako legelariak izan daitezela paperean egindako sinaduren balioa egiaztatu ahalko dutenak, zeren eta horrekin bete-behar berri batzuk esleitzen ari baitzaizkio Estatu-ko kidego bati.

50. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

57. artikulua –"Sinatzeko sistemak"– d) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“d) Sinadurak biltzeko plata forma digitalak, kontrol auditatuarekin, datuen babesari buruzko Europako araudia betetzen dutenak”.

Zioak: Gaur egun inongo plataformak betetzen ez badu ere, Change.org delakoak ere ez, agerikoa da hemendik gutxira egunera jarriko direla araudia dela eta.

51. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

63. artikulua –“Sentsibilizazioa”– aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“63. artikulua. Sentsibilizazioa.

Nafarroako Gobernuak aktiboki sustatuko du bere eskubideen jakitun den gizarte zibil aurreratu bat sendotuz joatea urratsez urrats. Ildo horretan, sentsibilizazio neurri hauek ezarriko dira gizarte parte-hartzaile bat sendotzeko asmoz:

a) Prestakuntza eta sentsibilizazio programak, laguntza-neurriak eta prestakuntza ikastaroak herritarrentzat, gizarte-entitateentzat eta herritarren elkarreentzat.

b) Urteko diru-laguntzak gizarte-entitateen eta herritarren elkarreentzat jardura sustatzeko.

c) Parte-hartzearen arloan aholku emateko bitartekoak, eta herritarrek sustatutako parte-hartze prozesuen dinamizazioan laguntzekoak.

d) Hezkuntza programak, hitzaldiak eta esku-hartze didaktikoak funts publikoekin lagunduriko Nafarroako Gobernuaren ikastetxeetan.

e) Lankidetzaren hitzarmenak, herritarrek toki entitateetan duten parte-hartzea sustatzeko.

f) Administrazio publikoek, sindikatuek, enpresek eta abarrek herritarren parte-hartzearen arloan dituzten jardunbide egokiak aitortzeko protokoloak eta abar”.

Zioak: “Gizarte-entitate parte-hartzaileak” esateak ez du inongo zentzurik.

52. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

64. artikuluko –“Prestakuntza”– c) puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“c) Sustatuko du kargudun publikoek eta teknikariak parte-hartzearen arloko prestakuntza izatea.”

Zioak: Ez du zentzurik prestakuntzarako hitzarmenak egiteak; formula bat izan daiteke, baina ez da bakarra.

53. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Proiektuan behin eta berriz agertzen den “Webgune” hitza aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“Gune Digitalak”

Zioak: “Webgunea” baizik ez jartzeak kanpoan uzten du populazioaren zati handi bat, gazteak batez ere; gainera, anakroniko gertatzen da, atariak bezala.

54. ZUZENKETA

GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Oraingo VI. tituluaren aurretik beste titulu bat gehitzeko zuzenketa (Parte-hartzea sustatzea).

“VI. TITULUA

Haurren eta nerabeen parte-hartzea.

63. artikulua. Haurrek eta nerabeek parte-hartzerako daukaten eskubidea.

Aitortzen da haurrek eta nerabeek, Nafarroan dauden adingabe guztiek, eskubidea dutela parte-hartze aktiboa izateko, beren garapen ebolutiborako egokia den moduan eta beren dibertsitate funtzionalari egokituta, gizarte zuzenago, solidarioago eta demokratikoago baten eraikuntzan, bai eta bizi diren errealitatea ezagutzeko, haiengan eragin handiena duten arazoak deskubritzeko eta haietarako konponbideak emateko, pixkanaka herritartasun aktiboan sartuz.

64. artikulua. Haurren eta nerabeen parte-hartzerako eskubidea eraginkor egiteko, ekitate baldintzetan, Nafarroako erakundeek behar diren xedapenak emanen dituzte.

1. Herritarren parte-hartzerako ekimenek, bai eta haurren eta nerabeen bizitzan eragina duten gaiak ere, administrazio publikoek foru lege honen esparruan egiten dituztenek, haurren eta nerabeen eskubideetan eragina dutenean, behar diren egokitzapenak jasoko dituzte, bai eskainitako

informazioan eta komunikazio-bideetan, hurrek eta nerabeek haietan parte hartu ahal izateko, bai informazioa itzultzeko bideak ezartzerakoan ere, hurrek eta nerabeek parte hartzen duten prozesuetan.

2. Nafarroako Gobernuak bere zerbitzura aritzen diren langile guztiek prestakuntza egokia izan dezaten sustatuko du, haurren eta nerabeen parte-hartzearen arloan dituzten eskubideak eza gut ditzaten, eta bestetik, botere publikoek horren gainean hartu dituzten betebeharez jabe daitezten.

3. Nafarroako Gobernuak bultzatuko du ikaste-txeetan parte-hartze prozesuak susta daitezela, haurrak herritartasunaren agente aktibotzat hartuz, hezkuntza-ingurunea, udal mailakoa zein erregio mailakoa, hobetuko duten proposamenak bere egin ditzaten sustatuz, bai eta hezkuntza-komunitatean haurren eta nerabeen parte-hartzearen inguruko gaitasun demokratikoa eta herritartasunarena eraikitzen duten jarrera eta baloreen garapena ere.

4. Tokiko administrazioek jarduketak garatuko dituzte haurren eta nerabeen parte-hartzea beren lurralde- eta eskumen-esparruan sartzeko; horretarako, tokiko kontseiluak eta parte-hartzerako egitura egonkorak sortu eta abian jarriko dituzte, hurrek eta nerabeek osatuak, haiengan zuzenean edo zeharka eragina duten tokiko mailako gai guztietan kontsultako eta parte-hartzeko eginkizunekin, eta haien funtzionamendua abalatu dute.

5. Nafarroako administrazio publikoek sustatuko dute parte-hartze birtualerako espazioak sor daitezela, haurrentzat eta nerabeentzat eskuragarriak; haietan, beren iritziak emateaz gainera, hobekuntza-proposamenak eta iradokizunak egin ahaliko dituzte administrazio publiko desberdinen jarduketari buruz.

6. Nafarroako Gobernuak ikerlan eta azterlanak sustatuko ditu eta haietan parte hartuko du, hurrek eta nerabeek parte hartzeko estrategia eta tresna berriak eta politika publikoen hobekuntzan izan dezaketen eragina aztertze aldera.

7. Nafarroako Gobernuak toki entitateei lagunduko die haurren parte-hartzerako udal organoak era ditzaten.

8. Nafarroako erakundeek parte-hartze inklusi-boa sustatuko dute, eta behar diren jarduketa guztiak garatuko dituzte ahultasun handiena duten taldeetako hurrek eraginkortasunez parte hartu dezaten sustatzeko.

9. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Haurren eta Nerabeen Kontseilua sortuko du, haurren ahol-

ku-organo ez-lotesle eta parte-hartzaile gisa. Organo horrek proposamenak eginen dizkie erakunde autonomikoei eta iritzia emanen du haurrengan eta nerabeengan eragina duten politikei buruz. Kontseilua osatzen duten haurrak eskubide osoko kide gisa joan ahaliko dira, hala nahi badute, Nafarroako Adingabearen Kontseiluaren bilkuretara. Nafarroako Haurren eta Nerabeen Kontseiluaren osaketa eta eginkizunak erregelamendu bidez zehaztuko dira, haren eraketan hurrek eta nerabeek beraiek egindako ekarpenak kontuan hartuta.

10. Nafarroako Gobernuak behar diren tresnak ezarriko ditu kontu-ematea egokia eta bultzatzen dituen haurren eta nerabeen parte-hartzerako prozesuetarako egokitua izanen da, eta bereziki lotuta egonen dira Nafarroako Haurren eta Nerabeen Parte-hartzerako Kontseiluarekin.

65. artikulua. Askatasunez elkartzeko eskubidea

1. Hurrek eta nerabeek bermatuta dute Nafarroan haurrentzako eta gazteentzako elkarteak libreki eratze eskubidea, eta elkarte horietako zuzendaritza-organoetan parte hartzeko, lege indardunen eta haien estatutuen arabera.

2. Inongo haur edo nerabe ezin izanen da behartu elkarte bateko kidea izan dadin, ez eta elkarte batean bere borondatearen aurka gera dadin ere, zeren eta haurren parte-hartzerako eskubidea boluntarioa baita.

3. Nafarroako Gobernuak sustatuko du hurrek eta nerabeek gizartean parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatuko duten elkarte eta erakundeak era daitezten.

4. Gazteen elkartegintza sustatzeko Nafarroako Gobernuak eginen dituen jarduketetan, adingabeen parte-hartze aktiboa sustatuko da.

66. artikulua. Adierazpen askatasunerako eskubidea.

1. Administrazio publikoek parte-hartzerako bideak sustatuko dituzte, egokituak eta irisgarriak, haurren eta nerabeen ideien eta iritzien adierazpen librea erraztuko dutenak beren eskolako eta gizarteko bizitza eta herritar bizitza garatzen den esparru desberdinetan.

2. Nafarroako Gobernuak haurren eta nerabeen iritzi-adierazpen librea sustatuko du, haiek sustatutako zabalpen bideak lagunduz.

67. artikulua. Haiengan eragina duten erabakiak direla-eta entzunak eta informatuak izateko eskubidea.

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, bermatuko beharko dute hurrek eta nerabeek eskubidea izanen dutela beren interes eta eskubideetan eta beren ongizate pertsonal, emozional eta sozialean eragina duen informazio guztia lortzeko, lengoia egoki eta ulergarri eta inguruabarren arabera egokitua, haien garapen ebolutiboari eta heldutasunari begiratuta. Materialak behar diren egokitzapen linguistikoak eta aniztasun funtzionalaren arabekoak izanen dituzte. Informazio horrek egokia eta nahikoa izan beharko du erabakiak modu kontziente eta librean hartu ahal izateko”.

VI. tituluak, “Parte-hartzea sustatzea” izenburu duenak, hasierako lege proiektuaren edukiari eutsiko lioke.

55. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarri bat, haurren parte-hartzeari buruzkoa, gehitzeko zuzenketa. Hori dela eta, “Xedapen gehigarri bakarra. Ebaluazioa” delakoa, “Lehen xedapen gehigarria. Ebaluazioa” izatera pasako da, testua aldatu gabe.

“Bigarren xedapen gehigarria Haurren parte-hartzea.

Nafarroako Gobernuak foru lege honen haurrentzako egokitutako bertsio bat egingen du, Nafarroako adingabeen artean zabaltzeko.

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko epean, behar den erregelamendu-garapena egingen du, Nafarroako haurren eta nerabeen parte-hartzerako eskubidea guztiz baliatu ahal dadin.

56. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakarra gehitzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

“Xedapen iragankor bakarra

Nafarroako Parlamentuko organo eskudunak, foru lege honen 6.1 artikuluan oinarrituta, sei hilabeteko epean bere erregelamendua egokituko du

herritarren ekimenak direla-eta aitortutako parte hartzeko eskubideak bermatze aldera”.

Zioak: Parlamentuko zerbitzu juridikoek egingdako txosten juridikoak esaten du lege honek Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu-erreserba inbaditzen duela, zeren eta soilik haren erregelamenduari dagozkion gaiak arautzen baititu. Hori dela eta, proposatzen du herritarrek Nafarroako Parlamentuan aurkeztutako ekimenekin eta Nafarroako Gobernuak kideen gaitzespenarekin lotutako artikulua xehaka daitezkeela, haiek Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren erreforma moduan izapidetzeko.

Gobernuaren irizpideari jarraituz, ez gatoz bat gogoeta horiekin, eta legea edukirik gabe geratuko lirake baldin eta Parlamentuko legelarien irizpideari jarraituko bagenio. Hori dela eta, proposatzen dugu xedapen hori gehitzea Parlamentuari berari enkargatzeko bere erregelamendua egokitu dezan foru lege honetan jasotako eskubideak oinarri hartuta. Gure ustez, foru legeak herriaren legegintza-ekimena arautzen duen bezala, legea dela herritarren parte-hartzearen modalitate horiek eta eskubidea jaso behar dituena, eta Erregelamenduak haiek nola gauzatu ezarri behar duela. Irizpide hori bera erabili da Galizian herriaren legegintza-ekimena Galiziako Parlamentuan arautzeari buruzko abuztuaren 7ko 7/2015 Legean.

57. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen indargabetzaile bakarra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Xedapen indargabetzaile bakarra

Indarrak gabe geratzen dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta, berariaz, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legetik indarra hartu duten titulu eta xedapenak; horrenbestez, foru lege hau indarrak gabe geratu da guztiz”.

Zioak: Parlamentuko zerbitzu juridikoek egingdako txosten juridikoak aipatzen duen bezala, 11/2012 Foru Legearen zatirik handiena 5/2018 Foru Legeak utzi zuen indarrak gabe, eta xedapena egungo araudiaren errealitateari egokitu behar zaio. Hala eta guztiz ere, emaitza ez da berdina,

zeren eta legearen indarrean zegoen zatia indargabetuta gelditzen baita.

58. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

V. kapituluaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“V. KAPITULUA. Gardentasuna”.

Zioak: Kapitulu horretan beste artikulua bat sartzearekin bat etortzeko eta izenburua orokorragoa izan dadin.

Bestalde, aurreproiektu osoan oinarritzko premisa bat falta da, zeinarekin ezin baita parte-hartze erreal eta efektiboa lortu: gardentasuna. Parte-hartzea gertatzen da parte hartzeko, iritzia emateko, ekarpenak egiteko eta politika publikoen inguruko erabakietan koerantzulea izateko herritarrek daukaten eskubidean oinarrituta.

59. ZUZENKETA

GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Edukia honako honekin ordeztuko da:

“ZIOEN AZALPENA

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak, 2015ean 193 herrialdek ezarritakoak, nazioarteko erkidegoak pertsona guztientzat erdietsi beharreko 17 helburu ezartzen ditu, eta hori jasangarritasunez eta ekitatez egiten du. Horretarako, funtsezko elementu bat da herritarren parte-hartzea bermatzea.

Nafarroak bide luzea eta emankorra egina du erkidego politiko eta juridikoki sendotu gisa. Foru erakundeez gainera (zeinahi delarik haien adierazpen historikoa), bestelako erakunde batzuk ere baditu, kontzejuak eta batzarreak, konparazio batera, baita afera publikoetan erantzukizunez parte hartzeko bestelako praktika kolektibo interesgarri batzuk ere. Tradizio horiek erakusten dute bizitza instituzionalean parte hartzeko interes handia izan dela, eta, gainera, parte hartzeko dauden bide berriekin batera, aukera eskaintzen dute urrats erabakigarriak emateko eredu demokratiko irekiagoa, integraztaileagoa eta, beraz, herritarren

sostengua lortzeko askoz kapazagoa finkatzeko bidean.

Parte-hartzea eta demokrazia zein bere aldetik ulertu ezin diren errealitateak dira. Gizarteak, lehenik, inola ere urratu ezin diren eskubideen multzo besterezin bat bermatu behar du. Eta horrekin batera, herritarren parte-hartzea ahalbidetu eta sustatu beharra du; izan ere, zenbat eta handiagoa eta kalitate handiagokoa izan haien parte-hartzea, orduan eta demokratikoagoa izanen da gizartea. Hori garbi izanik, eta Espainiako Konstituzioak helburu duen “Demokrazia aurreratuaren” ideal horretara hurbildu nahirik, beharrezkoa da Nafarroako herritarrek parte hartzeko eskura dituzten baliabideak sustatu eta sendotzea. Baliabide horiek lege-arau hauetan jasota daude: martxoaren 25eko 3/1984 Foru Legea, Herriaren Legegintza-ekimena arautzen duena; uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, ekimen arauemaileak aurrera eramateari dagokionez; urriaren 28ko 27/2002 Foru Legea, Toki esparruko herri kontsultak arautzen dituena (lege honek ez du 27/2002 Foru Lege hori aldatzen); eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen IV. titulua, foru lege honek indargabetzen duena, izan ere, foru lege honen artikuluetan nabarmen zabalitzen baita titulu hartan jasotako parte-hartze eskubideen esparrua.

Alde batera utzita hauteskondeei loturiko parte-hartze baliabideak, legezko testu honen eremutik kanpo gelditzen baitira, gaur egun ditugun baliabideak Konstituzioan ere jasota dagoen beste agindu baten ondorio logiko gisa ulertu ahal izatetik oso urruti daude, hots: botere publikoei agintzen diena erraztasunak eman behar dituztela herritar guztiek parte har dezaten bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean. Berrogei urte igaro eta gero, handia da oraindik botere publikoek arlo horretan aurrera egiteko daukaten tarte. Horregatik, foru lege honen helburua da ahal den guztia egitea Nafarroa izan dadin gure antolamendu juridikoak parte hartzeko baimentzen dituen aukerabideen aitzindaria.

Konstituzioaren agindu hori ezin argiagoa izanagatik, doktrina bat dator esatean, adierazpen hutsetik haratago, betebeharrak hori –arrazoi desberdinengatik– ez dela behar bezala gauzatu herritarren errealitate praktikoaren ikuspuntutik, eta adostasun hori kalean ere islatuta dago modu espontaneoan. Egia da alde nabarmena dagoela legeak dioenetik herritarrek –hauteskundeetan alderdiei botoa emateaz haratago– gai publikoetan parte hartu ahal izateko egunero bizi duen errealitate mugatu eta eskasera. Eta alde hori da,

hain zuzen, gaur egun erakundeekiko dagoen atsekabea azaltzen duen arrazoietakoa bat, zalan-tzarik gabe.

Munduko herrialde guztiek aurrez aurre dituzten kalitate demokratikoaren eta giza eskubideen gainbeherak, gatazkek eta ezegonkortasun politikoek ezinbesteko egin dute nazioarteko agendan honako hauen moduko helburuak sartzea: gizarte baketsuak eta barne-hartzaileak sustatzea, maila guztietan erakunde eraginkor, barne-hartzaile eta gardenak eraikitzea, kontuak emanen dituztenak eta aldi berean bermatuko dutenak maila guztietan erabaki barne-hartzaile, parte-hartzaile eta ordezkagarritasunekoak hartzea, gizartearen beharriaz erantzunez.

Haurren eta nerabeen kolektiboari, populazioaren portzentaje aipagarri bat osatzen duten arren, sistematikoki ukatu zaio zuzenean dagozkion gaietan parte hartzeko eskubidea erakunde publikoek bultzatutako parte-hartze demokratikoko prozesuetan.

Haurren eta nerabeen parte-hartzerako eskubidea aitortuta dago 1989an Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsitako Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan. Konbentzioan, aitortzen da haurren gaitasuna aitortzen da beren ikuspuntuak adierazteko; iritzia libreki eta bere borondatez emateko; haiek ukitzen dituzten gai guztiak entzunak izateko; beren iritzia serioan hartuta izateko, heldutasun mailaren arabera.

Haurren parte-hartzea, banakako eskubide bat eta eskubide kolektibo bat izateaz gainera –erakundeekiko dagokie haien gauzatzea sustatu, bermatu eta babestea–, demokraziaren eraikuntza-prozesua hobetzeko estrategia bat da, zeren eta parte-hartzerako eskubideaz baliatuta haurrek rol aktibo bat baitute beren komunitatean eta aldaketarako eragile sozial gisa ikusten dute beren burua, tolerantzia oinarritutako jokabide demokratikoekin, desberdintasunak barne, edukitzeari, justiziari eta herritartasun orokorraren zentzu handiarekin.

Hortaz, beharrezkoa da Nafarroako gizarteak parte hartzeko gaur egun dituen bideak zabaltzea. Helburu hori erabat justifikatua dago ikuspuntu juridikotik, hala ezarrita baitago bai Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 6. artikuluan, bai Konstituzioaren 23.1 eta 9.2 artikuluan.

Foru lege honek honako egitura du: batetik, sei titulu, eta bestetik, bukaerako zatia, xedapen gehigarri batek, xedapen indargabetzaile batek eta hiru azken xedapenek osatua.

I. tituluan xedapen orokorrak biltzen dira. Besteak beste, legearen xedea, helburuak, subjektuak eta aplikazio eremua zehazten dira. Aplikazio eremuari dagokionez, Nafarroako administrazio publikoak ukitzen ditu, baina, batez ere, herritarrei eskubide batzuk bermatzen dizkie administrazio publiko horietan parte hartzeko.

II. tituluak herritarrek parte hartzeko hiru bide berri txertatzen ditu gure antolamendu juridikoan, Nafarroako administrazio publikoen ekimenez edo Nafarroako herritarren ekimenez aktibatzen ahalko direnak:

eztabaida prozesuak, aurrekontu parte-hartzaileak eta herritar-galdeketa. Horiekin batera, beste bide batzuk ere aurreikusten dira, 11/2012 Foru Legean jadanik jasoak zeudenak, konparazio batera, kontsulta foroak, herritarren panelak eta herritarren epaimahaiak.

Foru lege honen beste berrikuntza bat II. tituluan xedapen orokorretan jaso da; izan ere, gaur egun eskatzen den jendaurrean jartzeko izaipideaz haratago joanda, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa behartua egonen da Nafarroako Gobernuak onetsi behar dituen plan eta programa guztietan, jendaurrean jartzeaz gainera, titulu horretan bildutako parte-hartze prozesuren bat egitera, behar bezala justifikatzen den kasuetan izan ezik. Eskakizun berri hori nabarmenki zorrotzagoa da herritarren parte-hartzearen kalitateari dagokionez. Horren ondorioz, botere publikoak beraiek dira, goian aipatutako Konstituzioaren 9. artikuluan aginduak jarraikiz, herritarren parte-hartzea errazteaz gainera, hura sustatu eta bultzatzen dutenak, herritarren eskubideekin lotutako kontu guztietan gizarte zibil sendo bat sortu eta sendotzeko helburu garbiarekin.

Eztabaida prozesuak eta aurrekontu parte-hartzaileak, hurrenez hurren II. eta III. kapituluetan arautzen direnak, herritarrek Nafarroako Foru Komunitatean parte hartzeko baliabide berriak dira. Herritar-galdeketei dagokionez (IV. kapituluaren bigarren atalean arautuak), gizartearen sektore edo kolektibo jakin baten iritzia ezagutzeko parte-hartze baliabide gisa aurreikusten dira, toki mailako herri-galdeketei buruzko urriaren 28ko 27/2002 Foru Legean araututako galdeketa ez bezala, zeinak hautesleria osatzen duten udal-mugarteko herritar guztientzat irekita baitaude.

Hango herri-galdeketa, neurri batean, Konstituzio Auzitegiak Zuzeneko edo Erdi-zuzeneko Demokrazia gisa izendatu duenaren orbitan kokatzen dira. Foru lege honetan arautzen diren herritar-galdeketa, ordea, Demokrazia Parte-hartzailearen inguruan kokatuko lirateke aipatutako

auztegiaren iritziz. Hori horrela, herri-galdekietan parte-hartzea, betiere, boto bat ematearekin gauzatzen da –hortik datoz eskatutako berme jurisdikzionalak; hortik dator hautesleriak bakarrik izatea parte hartzeko eskubidea; eta hortik dator, logikoki, bozketa-sistema gisa hartzea–. Herritar-galdekietan, berriz, parte-hartzea mugatzen da herritarrek gai jakin bati buruz duten iritzia biltzera. Gainera, herritar-galdekietan, urtebetetik gora eroldaturik daramaten hamasei urtetik gorako pertsonak ematen dute iritzia, eta ez hautesle-errodan agertzen diren adin nagusikoek.

III. tituluak herritarren ekimenez gertatzen den parte-hartzea du aztergai. Legegintzako herri-ekimena aurreikusten du, eta, horrez gainera, mozioak, adierazpenak, gaitzespenak, galderak, interpelazioak, informazio eskeak eta ikerketa batzordeak sustatzeko aukera erreala eskaintzen die herritarrei. Bide horiek sortzen dira modu bereziki baliagarrian eragina izan dezaten bere eskubideen jakitun den gizarte zibil kementsu bat sortzeko prozesuan.

I. kapituluaren herritarren ekimen arau-emaileak jorratzen dira, eta legegintzako herri-ekimena arautzen duen martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legean ezartzeko arauetara bidaltzen du, eta toki esparrurako, berriz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

Herritarren gaitzespen ekimenez aipamen berezia merezi dute; baliabide hori II. kapituluaren arautu da, eta aukera ematen die herritarrei Gobernuko eta toki korporazioetako kideen jardura kontrolatzeko ekintzak sustatzeko eskubidea erabil dezaten. Ordezkaritzako beste konfigurazio batzuetan errebokazioa zilegi bada ere, gure sistema politikoan ez du biderik; izan ere, gauza jakina da Espainian herritarrek ez dutela banakako kargurik aukeratzeko, zeinak baitira, berez, errebokatu daitezkeen bakarrak. Aitzitik, zilegi da herritarrei aukera ematea eska diezaioten Parlamentuari edo toki korporazioko osoko bilkurari kideren baten gaitzespena, foru lege honetan jasotzen den bezala, nahiz eta bide hori ez den sekula erabili orain arte.

III. kapituluaren, Nafarroako herritarrek gainerako figura parlamentarioak Nafarroako Parlamentuan sustatzeko ekimena artikulatzen da (mazioak, adierazpenak, galderak, interpelazioak, informazio eskeak eta ikerketa batzordeak), baita Nafarroako Foru Komunitatean eta toki entitateetan parte-hartze prozesuak ireki daitezela sustatzeko ere.

Herritarrek tresna parlamentarioak sustatzeaz den bezainbatean, kapitulu honen lehenengo atalean jasotakoak hain zuzen, lege honek izugarri

indartzen du botere betearazlearen kontrol demokratikoa egiteko bermea. Gainera, ekimen parlamentario horien artikulazioak ekarri du eskea egiteko eskubide agurgarria beste modu berritzaileago eta osagarri batean konfiguratzeko, eta, hala, foru lege honi esker eskubide horren izaera sendotzeaz gainera, beste era batean egituratzen da, halako moduan non eske hutsetik parte-hartzera (eskea baino zorrotzagoa baita) doan distantzia nabarmen betetzen baita.

III. kapituluaren honen bigarren atalak aztergai ditu, sinadura kopuru jakin bat bilduta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan prozesu parte-hartzaile bat irekitzeko herritarren ekimenak. Hori berrikuntza garrantzitsu bat da, herritarrek botere betearazlearen politiken aurrean duten eginkizuna nabarmenki indartzera datorrena berriz ere. III. kapituluaren bukaera gisa, hirugarren atalean toki esparrura zabaltzen da herritarrek prozesu parte-hartzaileak sustatzeko aukera.

IV. tituluak parte-hartzearen antolaketa administratiboa arautzen du. Beste berrikuntza batzuk sartzen badira ere, arlo hau, batez ere, Nafarroako Gobernuak sortuko duen Parte-hartzearen Webgunearen bitartez artikulatuko da, non parte-hartzearen errealitate guztiak zentralizatu eta ikusaraziko baitira. Webgune horretan, prozesu guztiak berri emanen du Administrazioak. Horrela, foru lege honetan jasotako herritarren ekimenez batean inplikaturiko herritar guztiei online gune bat bermatuko zaie beren proposamena defendatzeko, sinadura digitalak biltzeko eta bideoak, audioak edo egoki iruditzen zaie beste edozein elementu erakusteko. Berriz ere, Nafarroako herritarrek arlo publikoan izaten duten parte-hartzea sustatzea eta horretarako erraztasunak ematea da kontua.

Ildo beretik, V. tituluak modu berritzaile batean arautzen du sinaduren bilketa –herritarren ekimen guztiak ezaugarritzen dituen elementua–. Sinadurak bildu eta egiaztatzeari begira, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak baliozkotu beharreko erabiltzaile eta pasahitz sistema baten alde egiten da, askoz ere azkarragoa, arinagoa eta eskuragarriagoa baita paperean jasotako sinaduren sistema tradizionala baino edo sinadura elektronikoena baino, zeinak, berriagoa izanda ere, herritarren artean harrera eskasa izan baitu.

VI. tituluak lehenengo aldiz arautzen ditu Nafarroan haurren parte-hartzerako eskubidearen sustapena eta bermea, bai maila autonomikoan, bai udalen mailan. Oinarriak jartzen ditu haurren parte-hartzerako organoak abian jartzeko, zeinek ordezkagarritasuna baitute udalean eta erkidegoan bizi diren haurren kopuruari eta dibertsitateari

dagokionez. Oinarriak jartzen ditu hurrengandik eta nerabeengandik sortzen diren parte-hartze errealeko prozesuak sortzeko. Halaber, arautzen da kontsulta prozesuak haurren ezaugarrien araberakoak izatea.

Azkenik, VII. tituluaren herritarren parte-hartzea Nafarroako gizartearen sustatzeko eta arlo horretan sentibilizatzeko neurriak jasotzen dira. Horretarako, bai foru eta toki administrazio publikoak bai herritarrak beraiek arlo honen garrantziaz jabetzeko tresnen alde egiten da.

Hori guztia eta legean zehar garatzen diren beste berrikuntza batzuk Nafarroako gizarteari aurkezten zaizkio gizarteak, herritarren parte-hartzearen inguruko guztian, dituen idealen pare dagoen foru lege bat eskaintzeko asmoz, eta, betiere, tratu eta aukera berdintasunaren printzipioan oinarriturik eta herritarrek eremu publikoan esku hartzeko gaitasuna ahalik eta modu emankorrenean sustatzeko asmo garbiarekin; izan ere, eremu horretan gizartea burujabea da, berez.

